



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2020ko apirila · 362. alea

TOKIKOM



KONFINAMENDUAN
UMORE ONA ETA ELKARTASUNA



PIL-PILEAN 362

2020ko apirila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|--|
| 4 | Begira Leihotako musikariak | IRITZIA |
| 6 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 3 Neuretik Roman Olaizola
<i>Kolektiboki jarduteko ordua</i> |
| 12 | Argazki bidez Covid-19 argazkitan. | 16 Gutunak Pil-pilean
herri-komunikabidearen oharra |
| 18 | Erreportajea Egoera berrira egokitzeko ahaleaginean | 16 Hausnarketa Zela bizi duzu
Covid-19ak eragindako krisia? |
| 26 | Plazan bazar Umeendako jolasak | 17 Zir(r)ika P.G. <i>Phisikosia</i> |
| 28 | Sakonean Elkartasun sareak | 17 Puntua Alberto Iñurrieta
<i>Ze etorri jaku gainera</i> |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea

Miren Gallastegi

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada:

2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Kolektiboki jarduteko ordua



ROMAN OLAIZOLA

Azkenaldian asko erabili da, interes eta inklusio esanahi desberdinekin, "eskubide kolektiboak" terminoa. Nik dakidala, eredu demokratiko batean eskubideak indibidualak dira. Beste gauza bat da pertsona talde batek zer bait kolektiboki egin nahi izatea; hori beste gauza bat da. Nire ustez, eskubideek indibidualak izan behar badute ere, hitz egiten hasi beharko genuke betebeharrak kolektiboez ere; betebeharrak batzuek kolektiboak izaten hasi behar dutela.

Pandemia hau ez da txantxetako kontua, oso gauza serioa da eta gure gizartea jake egoeran jarri du. Agian asmatuko dugu hala moduz egiten, agian ondo edo agian gaizki... baina gure betebeharrak kolektiboak da ahalik eta ondoen egiten saiatzea. Gizarte kohesioa izan zen Erroma gizadiaren historiako zibilizazio handienetako bat bihurtu zuena: "gizarte kohesioa etsai komunaren aurrean".

Gizarte gisa, batzuetan, ezin dugu zain egon. J.F. Kennedy presidentek esana da: "Ez galdetu zure herrialdeak zuek zer egin dezakeen; galdetu zuek zure herrialdearek zer egin dezakezun". Irribarreak, aieneak, erantzunkizunak... iritsiko dira. Orain ez da horretarako momentua.

Susmoa dut klase politikoa, oro har, (eta honek balio du "ganadutegi" guztientzako) argi eta garbi hobetzeko modukoa dela, baina egia da, era berean, botoa emateko eskubidea dugun pertsonok gure ordezkariak aukeratzen ditugunak, eta hori ere (onenak aukeratzen saiatzea) gure erantzukizuna da, gure betebeharrak kolektiboak. Gizarteak ezin du eta ez luke laga behar dena gauza bat esan eta beste bat egiten duen pertsona baten eskuetan, dela erakunde, telebista, denda, herri aldizkari, enpresa edo ikastetxe. Gizarteak horren gainetik egoteko eta taldean lan egiteko betebeharrak kolektiboak du.

Zaldibarreko zaborrak (ez dut hitz egingo kudeaketaz, erreponsabilitatez... ederra saltsa) ez dira Martetik etorri, guk sortu ditugu, gure kontsumo-gizarteak sortu ditu, gizarte snob, azkar eta itsu-itsuan aurrera doan honek. Eta hor, hain justu, hor, baditugu bete beharreko etxekolan kolektiboak ere. Eta zorioneko pandemiak, zeinaren jatorria argitu gabe dagoen, globalizazioaren erritmo berean egin du aurrera, eta ari da azken urteotan ezagutu dugun munduko gizarte, ekonomia eta politika ereduak lehertzen; hau ez baita hasiera baino. Azken batean, ezagutzen dugun gizarte ereduak, urtzen ari da. (Testua osoa Plaentxia.eus-en)

GIZARTE KOHESIOA IZAN ZEN ERROMA GIZADIAREN HISTORIAKO ZIBILIZAZIO HANDIENETAKO BAT BIHURTU ZUENA

Zuzeneko musika arratsaldero

ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

TESTUA: EGOTITZ UNAMUNO.

Konfinamendu egoera dela eta, elkartasun eta animazio ekimen ugari sortu dira herrian. Horietako bat da Estazio eta Kalonge kaleetako musikariek, auzoko bizilagunen txalo artean, arratsaldero, 20:00etan eskaintzen duten musika emanaldia. Ekimena Itziar Burunza eta Iñaki Quintanilla soinujoleek abiatu zuten, baina poliki-poliki beste hainbat musikari ere batu zaizkie: Lide pianoarekin, Maite panderoarekin, Jurdana trikitixarekin, Izaro gitarra elektrikoarekin, Andoni tronboiarekin... Errepertorioa gero eta landuagoa da: polkak, kalejirak, pasodobleak... Martxa honetan eta horrenbeste emanaldi eskainita, konfinamendua amaitzen denean herriko plazan jotzeko moduan izango dira. Bejondeizuela!







Soraluzeko anbulatorioan pertsiana jaisten.

Lau herritar ospitaleratuta

Azken datuen arabera, (eguzatena), lau soraluzetar daude Mendaron ospitaleratuta Covid-19 koronabirusa dutelako; zorionez, oraingo, haien egoera ez da larria eta plantan daude, ez ZIUn (UCI).

Joan den asteburuan ospitaleratu zuten Mendaron koronabirusaz kutsatutako laugarren soraluzetarra. Harrezkero, ez dute beste soraluzetarririk ospitaleratu eta orain arte (eguzatena), beste hainbat herritarri egindako Covid-19aren proba guztiek negatibo eman dute.

Gainera, ospitaleratutako herritarrak Mendaron daude. Ospitale horretan ez dituzte ZIU (UCI) behar duten gaixoak artatzen, beraz, soraluzetarren egoera ez da larria.

Kasu arinak

Horrek, baina, ez du esan nahi herrian Covid-19az kutsatutako gaixo gehiago ez dagoenik.

Izan ere, hainbat bizilagun etxean bakartuta egon dira edo oraindik ere halaxe daude, berrogeialdia egiten. Haietako hainbatek Covid-19aren sintomak izan dituzte, sintoma arinak, hori bai; eta beste hainbatek birusarekin kontaktu zuzena izan dute.

Aldiz, halako kasuetan ez diete Covid-19aren probarik egin, orain arte. Amaia Muniain Soraluzeko anbulatorioko medikuak esplikatu duenez, "probak ospitaleratzeko besteko egoera duten herritarrei bakarrik egiten zaizkie. Hala ere, mota horretako kasuak ere (etxean gaixo egon litezkeenak) jaitsi egin dira azken egunotan, baita

kutsatu den herritar kopurua ere".

Egun gehiago behar dira

Beraz, eta zuhurtzia guztiarekin esanda, azken egunotan egoerak apur bat hobera egin duela dirudi.

Hori bai, adituek diote oraindik goizegi dela egoerari buelta ematen hasi garela esateko: "Ikusiko bagenu kutsatu kopuruaren grafikoaren goranzko lerroa, igo beharrean, mantendu egiten dela eta jaisten hasten dela, orduan esan ahalko genuke egoerari buelta ematen hasita gaudela. Baina, gutxienez, aste hau bukatu arte itxaron behar da hori ikusteko", dio Lourdes Letona medikuak.

Hori horrela, Muniainek zein Letonak, bi medikuek argi dute ezarritako prebentzio neurriak "guztiz" mantentzen segitu behar direla: "Ikusi da erabat eraginkorrak direla, batez ere etxean geratzea".

Etengabeko aldaketak

Aste honetan, Amaia Muniain eta Lourdes Letona Soraluzeko anbulatorioan aritu dira lanean, biak bakarrik. Arreta telefonikoa zein etxez etxekoa ematen jardun dute. Letonaren kasuan, anbulatorioko zeregina bukatu ondoren, Elgoibarko egoitzan lanean ere aritu da.

Izan ere, azken asteotan, osasun zerbitzuak etengabe ari dira aldatzen sortzen diren

ORAINGOZ, PROBAK BAKARRIK EGIN DIZKIETE OSPITALERATZEKO EGOERAN DAUDENEI

beharrei eta gabeziei erantzun ahal izateko.

Aste honetan, herriko anbulatorioak pertsiana jaitsita izan du, baina, bi medikuek zerbitzua ematen segitu dute. Soraluzeko gainerako osasun profesionalak, berriz, bestelako zereginetara bideratu dituzte. Gaur gaurkoz, Covid-19 gaitzaren sintomak -sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasunak...- izanez gero, anbulatorioa deitu behar da-943 75 23 00-, Nekane Murga Osasun sailburuak azpimarratu duenez. Telefono horretatik Call Center batera desbideratzen dute deia eta han mediku bati pasatzen diote abisua. Horrela, medikua herritarrek kontaktuan jartzen da.

Presentziala, Elgoibarren

Bestalde, norbaitek mediku baten arreta presentziala behar badu, Elgoibarko anbulatorioa jo behar du. Aldez aurretik txanda hartu behar da 943 03 26 10 telefonoan. Hala ere, Covid-19a izan dezakeen susmoa duen norbait ezin bada bere kabuz bertaratu, anbulantzia eramango dute larrialdietara.

Nora jo?

Covid-19 gaitzaren sintomak izanez gero, Soraluzeko anbulatorioko telefono zenbakira deitu beharra dago: 943 75 23 00. Medikuek baten arreta presentziala behar izanez gero, berriz, Elgoibarko anbulatorioa joan beharra dago, aldez aurretik txanda hartuta.

"Kariño handiagoa igartzen dugu"

LOURDES LETONA ETA AMAIA MUNIAIN MEDIKUAK

Amaia Muniain eta Lourdes Letona medikuak zuzen-zuzenean ari dira jasaten koronabirusak eragindako egoera nahasia.

Zein da oraingo egoera?

Apur bat lasaixeago gabiltza; igartzen dugu ospitalerako estatistikek diotena: ospitaleratze gutxiago daude. Hori bai, hildako kopurua mantendu egin da eta mantendu egingo da, neurriak hartu aurretik gaixotu ziren eta larri dauden pertsonak dira. Guk ere, zentroan lasaitasun handiagoa igartzen dugu, bai telefono deietan zein etxez etxeko arretan.

Material aldetik zela zabilazte?

Osasun zentroak itxi dira justu jende guztiarendako materialik ez dagoelako. Gainera, profesionalen, sanitarioen... artean bajak izaten hasi gara. Osasun langile guztiak ari dira lanean larrialdiak, ohiko ospitaleratzeak, deiak eta bestelakoak artatu ahal izateko. Bestalde, osasun zentroak itxita izatean, etxean dagoen norbaitek Covid-19a izan dezakeen susmoa badugu, zuzenean anbulantziari deitzen diogu; haiek badituzte medioak

"OSASUN ZENTROAK ITXI DIRA EZ DAGOELAKO MATERIALIK JENDE GUZTIARENDAKO"



Muniain eta Letona, eguaztenean.

halakoei aurre egiteko, guri agortu zaizkigu dagoeneko. **Egunotan, zuek herritarrek harreman estuagoa duzue; zela ikusten duzue egoera, oro har?** Urduritasun handiagoa antzematen da kasu batzuetan. Konfinamendua zenbat eta gehiago luzatu, elkarbizitza orduan eta zailagoa da. Badaude familia ugariak etxe txikietan, balkoirik ere ez dutenak; demetzia duten gaixoak, Alzheimerra dutenak... haiekin bizi direnak... **Herritarregandik zuekiko harremana aldatu egin da??** Kariño handiagoa igartzen dugu. Adibidez, etxe batera deitzen dugunean, poztu egiten dira geu garela jakitean eta gugatik asko erreztatzen dutela esaten digute, animoak ematen dizkigute... **Besterik nahi baduzue gaineratu...** Etxean geratzeko eta ahalik eta gutxien irteteko. Eskerrak eman nahiko genizkieke kasu handiagoa egiten ari direlako. Guztiok irabazten dugu.



Rosa, Fatima, Iratxe eta Mariaje. Etxez-etxeko udal-zerbitzuko langileak.

Udal-laguntza zerbitzuak

Udalak 70 urtetik gorako herritarrei deitu die inolako laguntzarik behar duten galdetzeko. Orain arte, 10 herritarrek eskatu dute laguntza.

Larrialdi egoera ezarri zenetik, Udaleko Ongizate Zerbitzuak hainbat ekimen abiatu ditu etxetik ateratzeko arazoak dituzten pertsonen laguntzeko. Herritarren laguntza beharrak zein diren ezagutzeko, Ongizateko teknikariek dependentsia egoeran dauden edota bakarrik edo bikotean bizi diren 70 urtetik gorako 160 espediente atzertu dituzte eta zuzenean deitu diete 79 herritarri, laguntzarik behar duten galdetzeko. Orain arte, hamar herritarrek eskatu dute laguntza: hiruk zaborra ateratzeko, hiruk janaria erosteko, hiruk sendagaiak erosteko eta beste batek telefono bidezko arreta jaso du.

Azken hau Nagusilan Elkarteko zerbitzuaren bitartez bideratu dute eta gainerakoak Gurutze Gorriko boluntarioen bitartez.

Boluntario zerbitzua

Larrialdi egoera ezarri eta egun gutxira, Udalak eta Gurutze Gorriak boluntario zerbitzua jarri zuten martxan. Orain arte, Gurutze Gorrian hainbat herritarrek eman dute izena, baina horietatik 10 daude boluntario moduan alta emanda. Izan ere, boluntario izateko, izena emateaz gain, online bidezko bi orduko prestakuntza saioa jaso behar da.

Alkateak dihardu laguntza zerbitzua koordinatzen. "Orain

**ORAIN ARTE 10
HERRITARREK ESKATU
DUTE BOLUNTARIOEN
LAGUNTZA, JANARIA
EROSTEKO...**

**JAURLARITZA HASI DA
GIZARTE LARRIALDIEN
SAILERA DIRU GEHIAGO
BIDERATZEN BEHARREI
ERANTZUTEKO**

arte jaso dugun eskari kopurua aurreikusi genezakeena baino txikiagoa izan da. Ondorioz, oraingoz behintzat, ez dugu erantzuteko arazorik izan". Zaintza Sareari dagokionez, alkateak aipatu du harremanetan dagoela eurekin eta elkar koordinatuta dihardutela.

Amaitzeko alkateak jakinarazi du Jaurlaritza hasi dela Gizarte Larrialdietarako Laguntzen partidara diru gehiago bideratzen, dagoeneko sortu diren eta etorkizunean sortuko diren beharrei erantzuteko.

Telefonoak

610 71 07 82 Gurutze Gorria. Boluntario moduan izena emateko. (Ordutegia: goizez eta arratsaldean).

943 75 00 56 Udaleko Ongizate Zerbitzua. Behar den laguntza eskatzeko. (Ordutegia: 08:00-15:00).

Zaintza-Sarea martxan

52 herritarrek eman dute izena Zaintza Sarean boluntario gisa herritarrei laguntzen jarduteko.

Larrialdi egoera ezarri eta egun batzuetara, herritar talde batek Zaintza Sarea sortu zuen “zaintza erdigunean kokatu” eta herritarren artean sortzen diren beharrei “herritik bertatik” erantzuteko, “modu kolektiboan”. Komunikatuan azaldu zutenez, “beldurra esperantzarekin ta bakardadea eta isolamendua babes eta komunitate baten parte izatearekin ordezkatzeko garaiak” dira eta “zaintzak kolektiboa behar du izan”.

Zaintza Sarearen funtzionamendua autonomia den arren, Sareak elkarlanean dihardu Udalarekin eta Gurutze Gorriarekin, baita Ikastetxearekin ere.

Sareak hainbat eskaera bideratu dizkio Udalari, esaterako, “70 urtetik gorako herritar guztiei deitzea, euren egoeraren berri jaso eta gertutasuna helarazteko” eta “prestutasuna” adierazi diote lan horretan laguntzeko. Antolatzaileen esanetan, Udalak ez die oraingoz “egindako eskaerak aktibatze” asmorik helarazi”.

52 boluntario

Gaurdaino, 52 herritarrek eman dute izena sarean eta herritar bakoitzak izena eman duen momentuan, eman



Zaintza Sarearen irudia.

dezakeen laguntza mota aukeratu du: presentziala edota telematikoa. Modu presentzialean erosketak eginez edo zaborra ateraz laguntzeko prest dauden boluntarioak Gurutze Gorrira bideratu dituzte, gainerakoak, etxetik laguntza telematikoa eman ez etxekolanak egiten lagundu edo telefonoz konpainia egiteko prest daudenak, Sareak berak koordinatuko ditu.

Bestalde, telefono bat jarri dute laguntza eskatu edo boluntario moduan izena eman nahi duten herritarren eskura: 676 33 98 28. Orain arte, bi familiak eskatu dute laguntza umeen etxekolanekin laguntzeko eta bi boluntariok dihardute laguntza ematen.

Interneterako konexioa

Interneteko konexiorik ez duten herritarrei konexioa lortzen laguntzea da Zaintza Sareak lehenetsi duen beste zereginetako bat. Horretarako, “arrakala digitalaren kontrako kanpaina” jarri dute martxan eta herritarrei proposatu diete konexiorik ez duten bizilagunei euren konexioen pasahitza jakinarazteko. Horrekin batera, izaera komunitarioa duen eta konexioa oso prezio merkean eskaintzen duen Izarkom enpresaren berri ere eman dute, zehaztuz, zerbitzua eskolan eskatu behar dela. Dagoeneko, tramiteak abiatu dituzte 16 pertsonari internet konexioa bideratzeko.

Epe luzerako ikuspegia

Antolatzaileen esanetan, lehen bi asteetan laguntza eskari gutxi jaso badira ere, etorkizunean, konfinamendu egoera luzatu ahala, herritarren beharrak ugarituz joan daitezke, baita konfinamendua amaitu ostean ere. “Horregatik, gure asmoa da konfinamendu ostean ere laguntza sarea mantentzea”.

Telefonoa

676 33 98 28 laguntza eskatzeko edota eskaintzeko.

**16 PERTSONARI
INTERNET ZERBITZUA
ESKANTZEKO
TRAMITEAK ABIATU
DITUZTE**



Mesedeetako egoitzako bi langile eraikinaren kanpoko aldean.

Egoitza tinko eusten ari da

Alarma egoera ezarri zenetik hirugarren astea den honetan, Mesedeetako egoitzan Covid-19az libre segitzen dute; hainbat egoiliarri gaitzaren probak egin dizkiete eta negatibo eman dute

Covid-19 gaitzaren aurrean, 70 urtetik gorako adinekoak dira arrisku-taldeetako kide zaurgarrienak, eta herriko egoitzan egoiliar guztiek gainditzen dute adin hori. Beraz, albiste benetan positiboa da bertan, orain arte, kasu bat bera ere ez egotea.

Prebentzio neurri zorrotzak

Mesedeetako egoitzan alarma egoera ezarri baino dezente lehenago hasi ziren Covid-19az babesteko neurriak hartzen. Hasteko, martxoaren 6an, bisitak murriztu, egoitzako azpiegiturretan hainbat aldaketa egin eta garbitasun neurriak zorroztu zituzten. Gainera, gaiaren jarraipena egiteko

batzorde iraunkorra sortu zuten. Horrekin batera, prebentzio materialik ez zitzaizela heltzen ikusita, egoitzako zuzendaritza arduratu zen materiala lortzeaz.

Ondoren, alarma egoera ezarri eta berehala hasi ziren prebentzio neurriak zorrozten. Egoitza goitik behera berrantolatu zuten: osasun ezaugarri komunaren arabera elkartu zituzten egoiliarrak, egoitzan beren-beregi sortutako esparru berezietan talde txikietan sakabanatuz. Greban zeuden egoitzako langileek greba egiteari laga zioten.

Aipagarria da, baita ere, zaharren egoitzetan ohikoa dela noizbehinka gastroenteritis agerraldiak izatea, eta nahiz eta

Soraluzekoan azken bi urteotan halakorik ez izan, mota horretako gaixotasunen kutsatzea saihesteko neurri zorrotzak hartuta zituzten Mesedeetakoan: “Eskuen garbiketa, adibidez, oso barneratuta dugu, eskularruen aldaketa egin beharra... neurri horiek oso ondo funtzionatu dute”, esplikatu du Elena Beristain zuzendariak.

Duda barik, neurri horiek guztiak hartu izanak izango du zerikusirik egoitzan Covid-19 kasurik ez egotearekin. Gainera, joan den astean Eibarko suhiltzaileak egoitzan izan ziren garbiketa sakonagoa egiteko.

Egoiliarrekin harremanak

Neurri horiez gain, egoiliarren ongizatea zaintzeko bestelakoak ere hartu dituzte. Adibidez, nagusiek ezin dituztenez bisitak izan, skype zerbitzua abiarazi dute senideek eta lagunek egoiliarrekin berba egin ahal izateko. Horrez gain, egoitzako posta elektronikoaren bitartez egoiliarrei mezuak bidaltzeko edo bertako langileek animoak helarazteko aukera ere badago. -info@soraluzeegoitza.net-.

HAINBAT EGOILIARRI COVID-19AREN PROBAK EGIN DIZKIETE ETA NEGATIBO EMAN DUTE

PREBENTZIO NEURRIAK OSO GOIZ HARTU IZANAK IZANGO DU ZERIKUSIRIK KASURIK EZ EGOTEAREKIN

Udala telematikoki lanean

Udalak funtsezko zerbitzu gisa izendatu ditu Udaltzaingoa eta Ongizate Zerbitzua eta gainerakoek telematikoki dihardute.

Astelehenetik, Udalak funtsezko zerbitzuak bakarrik eskaintzen ditu modu presentzialean: udaltzaingoa eta ongizate arloko zerbitzuak. Gainerakoak, administrazioari dagozkionak, modu telematikokoan eskaintzen ditu eta langileek euren etxeetatik dihardute lanean, alkateak izan ezik; udaletxetik dihardu, ateak itxita bada ere. Brigadako langileen jarduna ere bertan behera gelditu da eta urgentziazko kasuetan bakarrik egingo dute lan.



Udaletxea.

EH Bilduren proposamena

EH Bilduk Udalarri proposatu dio dirulaguntzak banatzea, alarma egoeraren ondorioz kaltetuak diren herritar eta eragileei laguntzeko. Ondorengoak dira proposamen nagusiak: "1. Itxita dauden denda, hostalari zein jardura profesionalentzat 70.000 euro. Gehienez, 1.000 euro hilean. Zaborraren hiruhilekoa ordaintzetik salbuestea. 2. Haur eta mendekoen zaintzarako kontratazioetarako 50.000 euro. Gehienez etxeko 1.000 euro hilean. 3. 20.000 euro lanpostua galdu, pentsio duinik ez edota elikagai bankuko zerbitzu gabe geratu direnentzat. Hamabostero 100 euro. 4. Udalak eten dituen zerbitzuetako tasak itzultzea tarte proportzionallean (kiroldegiko abonua eta ikastaroak...).

Gaztea kartzelan dago

Martxoaren 16an, Ertzainek atxilotuta eroan zuten 33 urteko soraluzetarra eta ordutik espetxean dago, hilketaz akusatuta.

Martxoaren 16an, konfinamendua hasi eta egun gutxiira, Ertzaingak 33 urteko V.N. gaztea atxilotu zuen, Octavia Gomez 74 urteko andrea (bere ama) hiltzea egotzita. Gertakari lazgarria, Estazio kaleko etxebizitza batean gertatu zen. Ertzaingak etxebizitzara heldu zirenean, emakumea hilik aurkitu zuten, aurpegiari golpe handia zuela. Ertzaingak atxilotuta eroan zuten gazte eta handik ordu



batzuetara, epailearen aurrean deklaratu eta gero, epaileak

gaztea espetxeratzeko agindu zuen. Ordutik, espetxean dago.

Herriko eta herritik kanpoko erakunde publiko, alderdi eta mugimendu feministek tinko gaitzetsi zuten hilketari matxista eta hainbat adierazpen eta hurrengo egunetan hainbat protesta ekimen bideratu zituzten erasoak salatzen.

Mugimendu feministaren elkartasun gutuna



Egun batzuk geroago, Soraluzeko Mugimendu Feministak gutuna helarazi zion Gomez-Nuñez sendiari. Gutunean, mugimendu feministak "elkartasuna eta babesa" adierazi zizkion sendiari, onartuz, hilketari gertatu osteko orduetan, ez zutelako senitartekoen mina "behar beste kontuan hartu".

Covid-19a argazkitan

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI, EGOITZ UNAMUNO ETA UBANE MADERA.

Covid-19 edo, Euskadi Irratian ume batek ongi definitu zuen bezala, “famoso egin den gripea” zeresana ematen ari da, baita irudiak uzten ere. Ondorengo argazki-albumean jaso ditugu azken bi asteotan herrian atera ahal izan ditugun argazkietako batzuk. Argazkietan herritarrak, dendariak, erizainak, suhiltzaileak... ageri dira. Datozen egunetan, albuma osatze aldera, gustura jasoko genituzke herritarrok etxeetan edo balkoietan ateratako argazki eta bideoak. 699 868 729 zenbakira edo ubane@pilpilean.eus email helbidera bidal ditzazkezue. Aldez aurretik, eskerrik asko!





ARGAZKI BIDEZ





GUTUNAK

Denok zarete Pil-pilean

UBANE MADERA ETA EGOITZ

UNAMUNO

PIL-PILEAN HERRI-KOMUNIKABIDEKO
KAZETARIAK

Martxoaren 10ean koronabirusaren gaineko lehen albistea kaleratu genuenean, ez genuen pentsatzen gaiak gerora hartu duen dimentsioa hartuko zuenik. Birusari aurre egiteko neurriak hedatu eta zorroztu ahala, informazio eta albisteen esparrua ere erabat kutsatu du. Azken bi asteotan salbuespen dira birusak zipriztindu gabeko gaiak, bai gurean eta bai gainerako komunikabideetan ere. Ezinbestean, hein handi baten.

Pil-pileaneko kazetariok, aurretik bezala, bi aste hauetan ere soraluzetarrei ahalik eta informaziorik osatuena eskaintzen ahalegindu gara.

Lehen egunetan, webgunean bitartez, bideratu dugu informazioa, online, eta irakurleon erantzuna sekulakoa izan da, bataz beste webguneak egunean 1.600 bisita inguru jaso ditu eta. Orain, osasunez ondo gaudenez, inprentak zerbitzua eskaintzen digunez eta, legeak funtsezko jardueratzat izendatuta, legez babestua dagoenez, aldizkaria ere kaleratu dugu eta gure banatzailearen prestutasunari esker herriko etxe guztietara banatuko dugu, hartu beharreko babes neurri guztiak hartuta, noski.

Eskerrak eman nahi dizkiegu egunotan gure dei eta eskaerei erantzun diezuen herritar guztiei, momentu zail hauetan hain harrera ona egitearren, baita komunikabidean ezinbesteko kolaboratzaile eta lankide zaituztegunoi ere, eta

herriko komertzioei, erakundeei eta herritar guztioi. Zuei denoi esker ateratzen dugu aldizkaria hilero eta webgunea egunero, euskaratik eta euskaraz. Eskerrik asko! Denok zarete Pil-pilean!

Besarkada estu bana eta animo, laster gara kalean eta!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Covid-19aren krisia zela bizi duzu?

Covid-19 gaitzak eragindako krisi ezezagun hau zela bizi duten galdetu diegu lau herritarri.



MAITE ELIZBURU
LANGILEA

"Uste baino hobeto; egunek aurrera egin ahala, ohitzen. Honek erakutsi digu gizakiok egokitzeke dugun gaitasuna. Uste dut denoi ondo egin digula etxean egote honek. Ez dugu planik eta ez dugu ezta planik pentsatu behar ere. Frenetikoegi bizi ginen, antsietatez".



GONZALO PORTU
ERRETIRATUA

"Lehenengo egunak txarrago, orain poliki-poliki ohitura hartzen eta zerbait egiten, bestela aspertu egiten zara. Egoera ez dago ondo, baina momentuz, nahiko trankil nago. Uste dut hemen jendea nahiko ondo errespetatzen ari dela. Hau bukatzean, mendira joango naiz".

ZIR(R)IKA

P.G. *PHISIKOSIA*

PUNTUA



ALBERTO IÑURRIETA

Ze etorri jaku gainera?

Azkenaldi honetan komunikazio sistema nagusi bihurtu den zoriarekiko Whatsapp-aren bidez jakin dut egun jasaten dugun pandemia orain 100 urte ere izan zela, orduan gripe española bezala ezagutua, eta sekulako sarraskia egin zuela munduko biztanlerian. Baina 100 urte lehenago, 1820an, Colera izeneko eta 100 urte lehenago, 1720an, peste bubonikoa. Guztietan gizartearen funtzionamedua hankaz gora jarri dute pandemiak.

Bolada honi ere tokatzen zitzaion, itxuraz, halako gertaera batetik pasatzea eta iritsi zaigu.

Orain, nola jokatu? Hortxe dago gakoa. Gure bizitzak erabat aldatu dira; lanera joan ezin, eskolak eta bestelako zerbitzuak geldituta, dinamika ekonomikoa ia guztiz eten da. Erretiro batetan bizi gara eta gaixo erortzeko beldurrez.

Bizitza tokatzen zaigun egoera hau ez da inondik inora aukeratuko genukeen zerbait, baina, hala ere, arazo edo aukera moduan har dezakegu eta erabaki horren arabera esperimentatuko dugu bizipena. Elkartasun seinale ugari ikusi ahal izan ditugu egun hauetan eta hori benetan pozgarria da, harro sentiarazten gaitu gizaki bezala, alkatu egiten gaitu. Beraz, eskerrak corona ta guztiko virus berriari.

**PEDRI LETE**
ERRETIRATUA

"Nik ondo daroat. Goizean 9.00etan jaiki eta eguerdira arte kirola egin: zinta, total kruntx... Gero, bazkaldu, eguneko informatibo bakarra ikusi, Plaentxia.eus eta sare sozialak begiratu, txaloak jo eta telebista pixkat ikusita lotara. Astean behin bakarrik ateratzen naiz."

**IRAIA DE LOS SANTOS**
IKASLEA

"Pixkat etsita nago. Kalera irten nahi eta ezin... Nik egiten dudana da goizetan klaseak jaso online, arratsaldetan kirol pixkat egin, 20:00etan balkoian txaloak jo, afaldu, telebista pixkat ikusi eta ohera. Desiatzen nago lagunekin eta familiarekin elkartu eta kalera irteteko".



Egoera berrira egokitze-ko ahaleaginean

Munduko bizilagunen artean inork ez du ezagutu gaur egun bizi dugun egoera. Ezezaguna izateaz aparte, egunetik egunera aldatu egiten da, gainera. Orain, errealitate horretara egokitzen dihardute soraluzetarrek, zailtasunak zailtasun, askok uste izango zutena baino hobeto.

Testua eta argazkiak: **Egoitz Unamuno eta Ubane Madera**

"Herritarrei zerbitzua eman nahi diegu"

MARIAPI ETXEBERRIA, ISABEL ARISTI, MILA MORO, NEREA UNAMUNO ETA AXUN SORALUZE LANGILEAK



Kooperatibako langileak saltokiko sarreran.

Alarma egoera ezarri zenetik, herritarrei etengabeko zerbitzua ematen ari den herriko saltokirik handiena da Kooperatiba. Jende-ilara luzeenetarikoak izaten dituzte, izan ere, oinarritzko denetariko produktuak saltzen dituzte. Egoera berrira egokitzeke buru-belarri ari dira lanean Mariapi Etxeberria, Nerea Unamuno, Mila Moro, Ana Sebal, Isabel Aristi eta Axun Soraluze. Gainera, egunetik egunera aldatzen den egoerara egokitu behar izan dute eta birusaz babesteko hartu beharreko neurriek zaildu egiten dute haien jarduna. Pentsa, martxoaren 20an, Ana Sebal lankideak ondoeza izan zuen estresak jota. Lankideek aurrera egin eta, oraingoz, goizez eta arratsaldeaz dihardute lanean,

baita zapatu goizetan ere. Mila Morok kontatu du zela bizi duten egoera: "Ordu mordo sartzan ari gara. Azken hiru domeketan ere lanera etorri gara eskaerak egitera. Herritarrei zerbitzua eman nahi diegu eta horregatik ari gara lanean topera. Animo aldetik nahiko ondo gabiltza, momentu baxuak ere izaten ditugu, baina orokorrean, ondo. Bestalde, igartzen da orain jende gehiagok erosten duela hemen. Kanpoan lan egin eta kanpoan erosten duen jendea orain hona dator. Hasiera gogorra izan zen, jendea

"MOMENTU BAXUAK
IZATEN DITUGU, BAINA
ANIMO ALDETIK NAHIKO
ONDO GABILTZA"

generoa bukatzeko beldurrez zegoen eta hura, zer izan zen hura! Orain, berriz, jendeak normal erosten du. Prebentzio neurriei dagokienez, herritar gehienek errespetatzen dituzte, baina ilaran egotearekin batzuk protesta egin izan dute, baita barruan distantzia gorde behar horrekin ere. Genero aldetik, berriz, denetik izaten segitzen dugu, gauza batzuk besterik ez dira falta: alkohola, eskularruak eta arroza. Arroza, adibidez, behin eta berriro eskatu dugu, baina oraingoz, ez dute bidali, ea datozen egunotan bidaltzen duten. Hasieran, batik bat, komuneko papera erosi zuen jende askok. Hala ere, hori orain badugu. Orain, garagardoa, ardoa... alcoholdun edari asko saltzen da. Tabernak itxita daudenez, etxean hartu behar.

"Kalera irtetea posible denean trenbidera paseatzera joango naiz"

MARIA JESUS ARRIZABALAGA ERRETIRATUA

Maria Jesus Arrizabalaga Elortzak 75 urte egingo ditu apirilean. Bakarrik bizi da. Martxoaren 14tik dago kalera irten barik, "batez ere, Itziarrek ez dit laga", dio. Erosketak ate aurrera ekartzen dizkiote, "atea ere ez dut zabaltzen" kontatu du, eta oro har, ondo dagoela dio: "Kalera irteteko gogoarekin nago, baina ondo nago. Egunero egiten dut berba seme-alaba guztiekin eta whatsapp ere erabiltzen dut. 'Plaentxia.eus' ikusten dut, telebista ere bai, albisteak eta entretenimendurakoa, batez ere, arratsaldeetan. Irakurri ere egiten dut. Gainera,



etxe handia daukat, eta goizean eta arratsaldean hamarna buelta ematen ditut. Pedalekin ere egiten dut ariketa. Bestalde, balkoi ederra ere badaukat. Eguraldi ona

denean han egoten naiz jarrita, kanpoan sikiera, oso garrantzitsua da balkoia egunotan. Eta Egunean Behin ere egiten dut, familian. Ondo nago, baina egoera luze egiten ari zait eta egunak kontatzen nabil. Egoera arduratzekoa da, sekula ez dugu bizi izan horrelakorik, pasatuko da, baina... Pazientziarekin hartu behar. Faltan igartzen dudana kalean eta trenbidean, bidegorrian paseatzea da. Berriro ere kalera irtetea posible denean egingo dudana lehenengo gauza horixe izango da: trenbidera joan paseoa ematera".

"Baserrietan konfinamendua eroan errazagoa da"

OLATZ LARREATEGI ESPILLA BASERRIA

Etxetik ez ateratzeko agindua orokorra da baina pentsatzekoa den moduan baserrietan bizi direnen konfinamendua lasaia da, etxe ingurura behintzat atera litezke eta. Olatz Larreategi kontatu digu Espilla baserrian nola dauden.

Espillan bi etxebizitza daude eta Larreategi anai-arrebak bizi dira bertan. Alde batean Olatz Larreategi bizi da eta bestean Asier anaia, bakoitza bere familiarekin. "Gu gara dena bat baina ahalegintzen gara denborarik gehiena bakoitza bere etxean egiten, astegunean behintzat. Gero asteburuan elkarrekin egoten gara".



Bistakoa da egunotan baserrian bizitzea abantaila handia dela. "Gu baserrian ondo gaude, kanpora irteteko eta haizea hartzeko aukera daukagulako. Etxe ondoko

jardinerara ateratzen gara edo ortura, lanak egitera. Umeekin egoteko abantaila handia da hori". Gainera, Espillan kirola egiteko lekua ere badute, rokodromo eta guzti. Hala ere, zer pentsatua ematen dio umeek pantailaren aurrean ematen duten denborak. "Lehen ere bagenuen arazoa mobilarekin eta telebistarekin eta orain gainera etxekolanak ordenagailuz egiten dituzte eta musika eskolak Skype bitartez jasotzen dituzte eta dena horrela. Garbi dago pantailena eroaten ikasi beharreko kontua dela, gaur egun hori barik ez dagoelako bizitzerik".

"Beldurrez gaude, 76 urte dituelako"

ARANTXI PLAZAOLA SEBAS ETXANIZ PRESOAREN EMAZTEA

Larrialdi egoera izendatu zutenetik, kartzelak isolatu egin dituzte, ondorioz, preso senide eta lagunek ezin dute bisitan joan. Horixe da Arantxi Plazaola sorluzetarraren kasua. Bere senarra, Sebas Etxaniz, preso dago Asturiasko kartzelan eta azken bi asteotan ezin izan du bisitarik jaso. "Martxoaren 14an joan nintzen bisitan, baina bis a bisa egiteko baimenik ez zidaten eman eta tartean kristala genuela egin behar izan genuen berba. Ordutik, ezin izan du inork bisitan joan eta telefonoz bakarrik gara berarekin. Orain, normalean



baino bi dei gehiago egiten lagatzen diote; guztira astean hamar dei".

Arantxi kezkatuta dago. "Beti gaude beldurrez. 76 urte ditu eta gaixotasuna espetxera

sartzen bada bere bizitza arriskuan egongo da. Abokatuaren bitartez eskatu dugu 3. gradua emateko eta baldintzapean aske lagatzeko. Horretarako baldintza guztiak betetzen dituelako, baina nik neuk esperantza gutxi daukat."

Joan zen barikuan, Sebasen senide eta lagunek bat egin zuten Sarek eta Etxeretek bultzatutako elkartasun ekimenarekin. #EtxeanNahiDitugu traola erabilia, herritarrek senideei eta presoek elkartasuna adierazi eta dispertsio politika bertan behera lagatzeko eskatu dute sare sozialetan.

"Beharrezkoa da laguntzaileoi ere testak egitea"

FATIMA BASRI ETA ROSA ETXEBERRIA ETXEZ-ETXEO LAGUNTZAILEAK

Fatimak eta Rosak, Mariaje eta Iratxerekin batera, udaleko etxez-etzeko laguntzaile moduan egiten dute lan eta kezka handiz bizi dute egoera. "Arrisku handikotzat izendatuta dauden udal-langile bakarrak gara, egunero etxez-etxe gabiltzalako. Protokoloak zorrotz bete behar ditugu eta horrek ardura berezia eskatzen du. Hasieran, geure kasa lortu behar izan genituen babes materialak, orain baditugu EPlak, baina oraindik ere EPI bereziak falta ditugu. Egoera zein den ikusita, beharrezkoa da laguntzaileoi ere testak egitea,



adineko pertsonekin lanean dihardugu eta".

Laguntza jasotzen duten herritar gehienak adinekoak dira eta "arduratuta" daude. "Gehienek ordu asko ematen

dute telebistari begira eta kezkatuta daude. Guk laguntzen diegu etxea garbitzen, kasu batzuetan euren burua garbitzen ere bai, janaria prestatzen, medikamentuak hartzen... eta horrekin batera animatzaile lanak ere egiten ditugu. Normalean, gure lana ikusezina da, baina momentu honetan inoiz baino ikusgarriago bihurtu da zaintza lanek garrantzia berezia hartu dutelako. Espero dugu egoera hau gainditutakoan ere, erakundeek eta gizarteak zaintzari duen garrantzia ematen jarraituko dutela".

Elesa Ganterrek lanean dihardu "gutxieneko maila operatiboan"

JESUS BLANCO GERENTEA

Elesa Ganter lantegiak “gutxieneko maila operatiboan” bada ere, lanean dihardu. Enpresak kontratupean dituen 27 langileetatik 9k lantegitik bertatik dihardute eta gainerakoek berriz etxetik, telelanaren bitartez. Jesus Blanco gerenteak azaldu duenez, lantegian osasungintzarako eta elikadura industriarako osagaiak egiten dituzte eta jarduera hori “funtsezko jarduera” moduan izendatu dute. Hala ere, Blancok aitortu du egoera nahasia dela. "Dudarik barik, produkzioa jeitsi egin da baina



egoera kontrolpean dugu. Datozen egunetan, datuak analizatuko ditugu eta jakingo dugu zehatz mehatz zenbatekoa izan den eragina eta orduan hartu beharko

ditugu jarduna murrizteko neurriak eta abar baina ez dugu aurreikusten ERTerik eta kontratu etenik egiterik. Hori katastrofikoa litzateke guretzat”.

"Bi aste irauten badu agoantatuko dugu baina luzatzen bada ez"

JOSE VICENTE BLANCO FOGASLER

Fogasler iturgintza enpresan 8 langile dira eta horietatik 3, bazkideak, daude “aktibo” emergentzia kasurik larrienei erantzuteko. “Guk lan asko egiten dugu industrian eta orain dena geldi dago. Dekretua atera behar zen eta kito baina atera den moduan eta dekretuaren aurretik laguntzak iragarri barik... Hori ez da ondo egin.Honek bi aste irauten badu agoantatuko dugu, berdin berdin ordainduko diegu langileei eta aurrera egingo dugu baina egoera hau luzatzen bada laguntzak beharko dira eta bestela nahi ez ditugun



neurriak hartu beharko ditugu. Lanik egin barik ezin dugu luze egon. Michelin, Mercedes eta bestelako enpresa handiek berehala ezarri dituzte ERTEak eta estatuaren laguntza

jasotzen hasi dira eta gainerakook, txikiok, autonomoek, horiek zer egin behar dute? Egoerarik larriena amaituta ere noizko aktibatuko da berriz dena?”.

"Hau gripe bat izango zela pentsatu genuen, hori esan zuten eta"

SABINO ELIZBURU MUNIOZGUREN ITALIAN BIZI DEN SORALUZETARRA

Sabino Elizburu Muniozguren Italian bizi da, Milanen. Jai Alai izeneko jatetxea du eta itxita dauka martxoaren 8tik, nahiz eta Italian martxoaren 10ean hasi konfinamendua. "Zorionez, badirudi hoberantz doala Italiako egoera. Hori bai, denok pentsatu genuen hau gripe bat izango zela. Orain, errazena kritikatzeko da, baina aditu gehienek ere hori esaten zuten eta ez da horrela izan. Hildako gehienak nagusiak izan dira, baina 50 urte inguruko jendea ere ari da hiltzen. Italian 36 mediku hil dira. Bestalde, Italian konfinamendua ezarri aurretik, Atalanta-Valencia partidua



jokatu zuten; 50.000 pertsona izan ziren hura ikusten. Atalanta Bergamoko futbol taldea da eta justu Bergamon eman da egoerarik okerrrena. Hemen, hor ez bezala, sanitarioendako ez da

material faltarik izan; ez da soberan izan, baina faltan ere ez. Horko berri jakiteko, berriz, ia egunero egiten dut berba etxekoekin eta Teleberri eta Plaentxia.eus ikusten ditut".

"Kulturgintzarentzat egoera katastrofikoa da"

UBANE MADERA GAZTELUPEKO HOTSAK

Gaztelupeko Hotsak eta Errabal Kultur Elkartek musika arloko promotore eta kontratazio lanak egiten ditu eta Ubane Uzinek kontatu duenez, lehen prebentzio neurriak aktibatu orduko hasi ziren ondorioak jasaten. "Kulturgintzako aktibitatea lehenengo momentutik moztu zen ehuneko ehunean. Hasieran, esan ziguten ekitaldiak beste data batzuetan berkokatuko zituztela baina ez da horrelakorik gertatu, besteak beste, aurreragorako datak ere hartuta zeudelako. Gainera, kontuan hartu behar da kulturgintzan udaberrian eta



udan fakturatzen dela urte guztiko jardunaren %70a baino gehiago. Dena den, okerrrena da kultur arloan 'berkokatzea'-z bakarrik berba egin dela eta ez sektorea

bizirik mantentzeko laguntzez beste arlo batzuetan bezala."

"Kulturgintzaren handikap nagusia da, ez dakigula noiz bueltatu ahaliko garen lanera. BBK Live eta Jazzaldia moduko jaialdi handiak ez dira egingo, edo desberdin egingo dira, kanpotik ez delako jenderik etorriko. Eta dena kate bat da. Zer gertatuko da herrietako jaiekin eta jaialdiekin?

Momentu honetan ez du beste irtenbiderik ikusten "lozorroaldian" sartzea baino. "Guretzat egoera ez da hain txarra, baina sektorearentzat egoera katastrofikoa da".

"Orokorrean jendea errespetuz dabil"

ANDER HORMAETXEA, GOTZON ODRIOSOLA ETA EULOGIO MANCEBO UDALTZAINAK




Hiru udaltzain patruilaren aurrean, Zubi Nagusian.

Asteotan lehen lerroan lan egitea tokatu zaienetako batzuk dira herriko udaltzainak. Alarma egoera ezarri zenetik, jendearekin zuzeneko harremana izaten segitzen dute. Horrez gainera, "zerbitzu" berri eta deigarria ere ari dira eskaintzen konfinamendua ezarri zenetik: herria musikaz girotzen dute patruilako bozgorailuetatik. Horrekin batera, 15 urtera arteko herritarren errolda hartu eta urtebetetze egunetan haiek zoriontzera joaten dira, etxepera. Egoera, "momentuz, nahiko ondo" dagoela kontatu du Gotzon Odriozola udaltzainburua. "Nahiko ondo, bai. Beti dago legea errespetatzen ez duen norbait, baina oraingoz, ez dugu izan arazo handiegirik. Herritar

batzuk identifikatu ditugu, beste batzuk salatu, baina gutxi. Guri dagokigunez, prebentzio neurriak hartu ditugu, baina bestela nahiko normal ari gara lanean. Adibidez, uste dugu musika ipintzen dugulako jendea nahiko pozik dagoela, ume txikiak dituztenak balkoira irteten dira eta kantu jakin batzuk ipintzeko ere eskatu digute. Atzo (astelehena), adibidez, Kalebarrengo merkatari bat zoriondu genuen eta ia negarrez hasi zen. Gauza jendea alaitzea da. Musika

"HERRITARREN ALDETIK GUREKIKO GERTUTASUN HANDIAGOA SUMATZEN DUGU"


ipintzen hasi ginenetik, herritarren aldetik gurekiko gertutasun handiagoa sumatzen dugu. Bestalde, kalean ibiltzearekin, jendea nahiko formal dabil. Badaude batzuk, hori bai, euren gurusoendako erosketak egiten dituztenak, beraz, gehiago ibiltzen dira kalean. Horregatik igartzen da jendea dabilela. Baina uste dugu normalean nahiko ondo doala kontua eta jendea errespetuz dabilela. Gu, zentzu horretan, zorrotz ari gara baldintzak betearazten. Hori bai, akaso txakur-jabe askok ez dakite etxe ondoan egin behar dutela paseoa txakurraekin, txakurrak beharrak egin eta berehala etxera bueltatu behar dutela, eta ezin direla haiekin paseoa ibili".



Etxabe Harategia

- Etxera eramaten dira
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeko baserrietako produktuek
- Etxeko iripaki eta txakorrak

Etxaburuta 5
Telefonoa: 943 75 23 75



Soraluzeko Kooperatiba Elkartea
1910etik raurak

Arraindegia, janaria, erropak, etxeko freskak, etxera eramateko zerbitzua

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larrietatik: 08:30 - 13:00



MABEL ILKAPAINDEGIA

- Baserrietako keratina tratamendua
- Depilazioa
- Be-sustrarik gabeko permanentea
- Makilajia
- Manikura
- Endinurikorra
- Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 09

ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, putze pertsona teknologikoki lan egiten du. Cad Cam sistema berrituak erabiltzen ditu.

Elizburu, 3 behea
SOLALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.h@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
9:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



BOLIA TABERNA

Pirxoak, arinak, korbinak
Gazte-giroko festa



Belarrak
lana eta belardenda

Elkagai ekologikoak
Etxerako zerbitzua

Sorla Ana 22
943 75 30 11



KM design
Kira Muntatzen

943 76 99 85

km.muntatzen@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 5
BERGARA

- Diseinu eta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-ormailuak
- Logelak
- Zoruzak
- Ateak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak



Carpinteria MANU Aroztegia

Ateak
Pentakak
Portakak
Sukaldeak
Tokiak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25



ARRANO taberna

Etxe eta gozatu etxeko pintxoak

Etxaburuta 6
Telefonoa: 943 75 24 09



IZAGUIRRE Igeitsaritza

Erakitin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeitsaritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 967 289



Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzen erretako bidotsa
Etxeko irioak
Souffles

Tel.: 943 75 10 02



ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA

arreta dekoratiboa industriala

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30



TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larrietatik: 08:30-13:00
Igandak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia, galletak, bombak, etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43



Mamar

Ilkapaindegia
Estetika
Solariuma

Galland 4, behea
Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 04

Euskalzaletasunaren alde:



ErLauntza

Zenbat erle
ikusten dituzu?

Horrez gain,
bila itzazu
elementu
hauek:



luma bat



jostorratz bat



botoi bat




bi eltxo



bi beldar



ehunzango bat



Itzala

Zein da bi lore maitemindu hauen itzal zuzena?



Labirintoa

Lagundu erleari erlauntzara onik iristen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu

behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esatera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartea dira.


sekuentzia



Idatzi hemen esaldia.



Sudokua



Ondoko BI LOREek sudoku baterako aitzakia eman digute. Osa itzazu lauki zuriak bi hitz horiek osatzen dituzten letrak kontuan hartuta (B, I, L, O, R eta E). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Marratzu

Sei dado hauetatik lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



Uil Erlea ihesi doa! Zer ote da beldurtu duena? Txori baten moko zabala? Tximista? Armiarma? Spray pozoitsua? Marraztu ezazu.



Elkartasun sareak

EGUNOTAN, ELKARTASUN EKIMEN UGARI SORTU DIRA ESKUZABALTASUNETIK

Koronabirusaren krisia lehertu zenetik, herritar asko elkartasun keinu esanguratsuak ari dira izaten. Adibide batzuk besterik ez dira jaso segidan, izan ere, beste asko daude.

Esaterako, Cristina Albisua eskulangilearekin batera, 500 maskara josi dituzte haren amak, Amaia ahizpak, Roberrek, Mariolak eta Rafa senarrak. Maskarak banatzeko Iratxo gozodendak eskaini dio azpiegitura. Josteko telak bertara eramaten dizkio herritar talde batek. Gomak Fanny eta Todo a 100 saltokiek oparitu dizkiote, eta Soralezeko Udalak 150 euro eman dizkio gehiago erosteko. Udaltzaingoak, berri, materialarekin joan-etorriak egiten ditu.

Bestalde, erabat koordinatuta ari dira herriko makerrak: Ion Varela, Iosune Jauregi eta Ander

Ariznabarreta. Etxeko 3D inprimagailuak berehala martxan ipini, eta biserak egin eta egin dihardute. Varela, batik bat, Osakidetzako eta egoitzako langileendako; Ariznabarreta-Jauregi bikoteak, berri, herriko saltzaileendako, hirurek horrela adostu ondoren. Makerrak ere, sare handia dute inguruan: Covid Euskadi elkarteko boluntarioak arduratzen dira egoitzekin eta Osakidetzarekin harremanak saretzeaz. DYako sanitarioak, berri, biserak eramateaz.

Eta bestelako eskuzabaltasun keinuen artean, aipagarri ere badira hainbat ipuin-kontalarik 'Plaentxia.eus'-en izandakoa; 20:00etan leihoan soinua jotzen dutenena, snorkle maskarak eman dituztenena; egoitzara prebentzio materiala eramane dutenena... zorionez, luzea da zerrenda.



Ion Varela

Ion Varela makerrak 70 bisera egin ditu etxeko 3D inprimagailuarekin. DYako profesionalen eta Covid Euskadiko boluntarioen artean osatutako sareari esker, Osakidetzako sanitarioek zein egoitzetako langileek erabiltzen dituzte.



Ander Ariznabarreta eta Iosune Jauregi

Ander Ariznabarretak eta Iosune Jauregik berehala ipini dute martxan etxeko 3D inprimagailua, "behar dute guztiendako". Biserak "egin eta egin" ari dira. "50 baino gehiago egin ditugu", dio Jauregik.



Ipuin kontalariak

Ipuin-kontalari izan da Irati Trebiño 'Plaentxia. eus' atarian. Hark abiarazitako sokak beste lau ipuin ekarri ditu atzetik, Olatz eta Peru, Etzozí eta Sararenak. Guztiei esker, astebetez, umeei aisialdirako tartetxoa eskaini diete.



Snorkel maskarak

Hainbat ospitaletatik snorkel maskarak behar zituztela entzun eta berehala, halako bost eraman dituzte beste horrenbeste herritarrek Udaltzaingora. Oraingoz, maskara horiekin probak egiten ari dira, beraz, momentuz, ez dituzte erabili.



Cristina Albisua 'Orratz' eskulangilea

Saltokietan babesteko materialik ez zutela ikusita, Cristina Albisuak berak sortzea erabaki zuen. Pentsatu eta egin: martxoaren 20an maskarak josten hasi eta hamar egunean 500 banatu ditu, saltokietan, lantokietan, herritarrei...



Soinujoleak

20:00etan, leihoetan eta balkoietan txaloak jotzeko hitzordua jarrita dago, batik bat, osasun langileei zuzenduta. Hainbat herritarrek, gainera, txaloak soinuarekin jantzen dituzte Estazio kalea ondo girotuta dute, adibidez.

ZORION AGURRAK



Ioritz Aizpitarte eta Aitor Agirre
Apirilaren 2an, 37 urte eta apirilaren 27an, 7 urte. Zorionak eta ondo ospatu, etxeko guztien partetik!



Irati Oregi
Apirilaren 10ean, 8 urte. Zorionak laztana! Segi halakoxe jator! Etxekoen eta Argateko lagunen partez.



Eider Ruiz eta Asier Osa
Martxoaren 14an, 40 urte eta martxoaren 24an, 9 urte bete dituzuelako. Zorion bero-beroak! Etxeko eta lagun guztien partetik.



Xabier Alberdi
Fayanas
Martxoaren 9an, urtebete. Gure mutil koxkorra ya haunditzen zoiatz! Zorion haundi bat Intza eta Arlenen partez!




Paula
Apirilaren 1ean, 9 urte. Zorionak, Paula! Asko handitu zara denbora gutxian, asko maite zaitugu. Segi izaten horren alai eta maitekorra! Etxekoen partez.



Amets Alberdi
Apirilaren 12an, 11 urte. Zorionak guapisima! Hau dena bukatzean, demaseko festa egingo dogu. Muxuak etxekoen partez.



Mariaje Arrizabalaga
Elortza
Apirilaren 17an, 75 urte. Zorionak, etxeko guztien artetik.



Sugoi
Apirilaren 11n, 7 urte. Zorionak! 7 tirakada belarritik, 7 besarkada eta laztanak familiaren partetik.



Janire Muñoz
Martxoaren 8an, 12 urte. Zorionak printzesa! Musu handi bat! Familiaren partez.



Iraultza Diez
Rascon
Martxoaren 25ean, 13 urte. Zorionak! Maite zaitugu asko! Etxekoen partez.



Oier eta Unax
Zorionak bikote! Otsailaren 21ean 10 urte, eta martxoak 1ean 7 bete dituzuelako. Familiaren partez!



Jone Ormazabal
Martxoaren 6an, 7 urte. Zorionak laztana eta ondo pasa zure egunean. Familiaren eta lagunen partetik.



Ekain Larrañaga
Apirilaren 21ean, 16 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik!



Andoni Calles
Apirilaren 7an, 44 urte. Zorionak! Segi beti bezain indartsu.



Nayala
Martxoaren 3an, 9 urte. Zorionak printzesa! Etxeko guztien partez.

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Juan Barrenetxea Aranzibia
Antonio Elizburu Gorrotxategi
Octavia Gomez

Jaiotakoak
Omar Ibn El Hadi

KINTOAK



1928ko kinto bazkaria
Martxoaren 1ean Armendi jatetxean bazkaldu zuten. Bazkaltiarak: Mari Cruz Etxaniz, Pilar Belategi, Margarita Maiztegi eta Jesusa Maiztegi.

JAIOBERRIAK



Unai Elorza
Otsailaren 5ean jaio zen.

MENDIZABAL
okindegia
Ogia · Prentsa · Gosariak

Asteheneretik
ostirlerara:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99



Justuaren plazertza, bertatik bertara

Batzoki
Batzokiak

eguneko menua
asteburuetako
karta eta txakak

ogitariekok eta
hamburgerak
enkaratu berezikiak

benita eta
lagun amatek
bertatik

Erreserba 943 75 20 35



Hortz klinika

Errabai 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.591

Katia Guzmán
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

27 urteko esperientzia
odontologikoa, prebentiboa,
odontopediatria, ortodontia,
implantak, estetika...
Zerbitzu radiologiko orokorra (3D):
endometria, orto eta tele.



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñate)
fogasleriturgintza@gmail.com



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgerak,
ogitariekok,
razioak, pizkak,
gosiak...

Enkaratuak
egiten dira

Tel. 943 75 17 89



JUAN MARI
ARRAINDEGIA

Arrate Iratxe
Elizate errenbiko bertikoa
Enkaratu bertan dirudi

NEBRIJATI PLAZA - 943 75 24 48



KLB6

Kalebarran 6
943 67 20 20
Mallorca-errenbiko
moda-gosaria

hala
eta
hala

ISOLID
BONICH

VERO MODA



TXURRUKA
JATETXEA

Sukalde
tradizionala

Eguneko menua
Asteburuetako
menu berezia

Karta
www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, salgarpenak · Administraziozko lanak
Tratamendu burokratikoak · Lan-arloko aholkularitza
Enpresen konstituzio-ideak · Kontabilitateak

Santa Ana 13 · 1. eko. 20590 Soraluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



Covid-19 Osasun Larrialdia

**Euskadiko tokiko saltokiak,
funtsezko jarduerak irekita jarraitzen dute.**

Mila esker!
Guztiei egunero pertsona igotzeagatik.

Mila esker!
Euskadiko tokiko
saltokietako pertsonen.

Mila esker!
Hurbiltasunez eta profesionaltasunez
arreta emateagatik.

Mila esker!
Bertan egoteagatik zuen
beharra daukagunean.

Mila esker!
Zuen lana ezinbestekoa da.

Tokiko erosketa, egin kontsumo
arduratsua, zero xahutze.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

#EuskadikoSaltokiak


#etxetikhurbil



Zoragarria! Bizikale
Elkarteko saltokiak
motor handia dira
herrian Coviden aurka.



Gaur egun saltokiak inoiz baino
gertuago daude gugandik.
Etxerainoko zerbitzua ere
eman diezagukete.




Nik beti erosi izan
dut Soraluzeko
dendetan



Nik ez, baina ematen
duten zerbitzua ikusita...

NI ERE HERRIKO
MERKATARITZARA
PASATUKO NAIZ!



#NiEreHerrikoMerkataritzaraPasatukoNaiz

#NiEtxeanGelditzenNaiz